

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

AHOLKULARITZA JURIDIKOA

772/20 prozedura laburtuan epea jartzea

Administrazio Orokorreko lanpostuetarako hautaketa-prozesuko oposizio- eta lehiaketa-faseetako behin betiko emaitzak onartu zireneko epaimahaiaren erabakiaren kontra jarritako gora jotzeko errekurtsua ezetsi, lanpostuak esleitzeko eta praktikaldiko funtzionarioak izendatzeko proposamenak egin eta prozesu horretatik sortutako aldi baterako kontratazio-zerrenda sortu zeneko Giza Baliabideen zinegotzi ordezkariaren 2020ko irailaren 20ko ebazpenaren kontra eta, orobat, aurkaratutako erabakiaren ondoriozko egintza eta ebazpen guztien kontra 44671377H nortasun-agiriaren titularrak aurkeztutako administrazioarekiko auzi-errekurtsua —772/20 prozedura laburtua— izapidetzen ari delarik Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako 1. Epaitegia, bederatzi eguneko epea jarri da, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 49.1 artikuluan xedatutakoaren ildotik, bere interesetarako komenigarritzat jotzen badu bertara ager dadin, lege beraren 23. artikuluari jarraiki.

Epe-jartze formalaren balioa izan dezan, hauxe eman eta sinatzen dut.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko otsailaren 8an

Udal legelaria

AMAYA ALFONSO ACEBO